



**OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA**

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako  
Saillburuordetza  
*Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko  
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Calidad, Investigación  
e Innovación Sanitaria  
*Dirección de Gestión del Conocimiento y  
Evaluación*

# TOXIKOMANIETAKO INFORMAZIO SISTEMA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

**2009**

**N. Rodríguez-Sierra**  
**M.I. Izarzugaza**  
[info2-san@ej-gv.es](mailto:info2-san@ej-gv.es)

Erregistroen eta Osasun Informazioaren Zerbitzua.  
Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza  
Osasun eta Kontsumo Saila

2011ko ekaina

## **SARRERA**

Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) Drogei buruzko Estatuko Planaren barruan jarri zen martxan, 1987an. Informazio-sistema hori opiazeo- eta kokaina-kontsumoaren zeharkako adierazletan oinarritu zen, hasieran, baina 1996tik aurrera gainerako substantzia psikoaktiboetara zabaldu zen. 2003. urtean, halaber, beste aldaketa bat izan zuen eta Treatment Demand Indicator (TDI) izeneko Europako protokolo estandarrarekin egin zuen bat.

Une honetan, SEITen adierazleak —beste adierazle batzuekin batera— Drogei buruzko Espainiako Behatokian (OED) sartuta daude, baita Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokian (OEDT) ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez, informazio-sistema horretan sartuta dauden adierazleen datuak bildu dira, definitzen joan diren heinean, eta arian-arian gertatutako aldaketak ere txertatu dira. Droga Mendekotasunen Euskal Behatokian sartuta daude adierazle horiek.

Hauek dira sartutako aldaketetan erabili diren adierazleak:

**TRATAMENDU-ADIERAZLEA.** Helburu hau du: urte jakin batean, toxikomaniak tratatzeko zentroetan (Osakidetzakoetan zein sarearekin itundutako edo itundu gabeko zentro pribatuetan) substantzia psikoaktibo gehiegi kontsumitzeagatik eta horien mendekotasuna gainditzeko tratamenduari ekiten dioten pertsonen kopurua zein den jakitea.

**LARRIALDI-ADIERAZLEA.** Helburua: 15-54 urte bitartekoek substantzia edo droga psikoaktiboak hartu dituztelako ospitaleko zenbat larrialdi-gertakari izan dituzten jakitea.

**HILKORTASUN-ADIERAZLEA.** Helburua: gure erkidegoan 10-64 urte bitartekoek substantzia psikoaktiboak ez medikuak esanda eta nahita kontsumitzeagatik izandako kontrako erreakzio akutuaren ondorioz zenbat lagun hil diren jakitea.

## **MATERIALA ETA METODOAK.**

Informazioa SEITek ezarritako protokoloaren arabera jasotzen da. Protokolo hori aldatu egin zuen 1996an eta 2003an. Datuak modu desberdinean jasotzen dira, adierazleen arabera.

TRATAMENDU-ADIERAZLEAN datuak modu pasiboan jasotzen dira. Zentroek tratamendua erregimen ambulatorioan egitera onartutakoen jakinarazpen-orriak bidaltzen dituzte Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren Erregistroen eta Osasun Informazioaren Zerbitzura. Hor, datuak egiaztatu eta atzemandako akatsak zuzendu eta prozesatu egiten dira, eta bikoizketak ezabatu. Jakinarazpen-orri horietan honako datu hauek biltzen dira: alde batetik, datu sozio-demografikoak (sexua, jaiotze-data eta probintzia, bizi den udalerrria eta probintzia, nazionalitatea, heziketa-maila, lan-egoera, bizikidetzeta eta bizi izan den tokia); bestetik, drogen kontsumoari buruzkoak (tratamenduan onartzea eragiten duen droga nagusia —alkohola barne—, kontsumoaren maiztasuna tratamenduan onartu aurreko 30 egunetan, kontsumitzen hasitako urtea, aldez aurretik tratamenduren bat egin ote den, kontsumitzen diren bestelako drogak, hartzeko bidea eta egoera serologikoa GIBa dela eta)<sup>1</sup>; eta azkenik, erreferentzia-iturria.

Txosten honetan aurkezten diren emaitzak zentro eta erakundeen jakinarazpenetatik atera dira. 1. eranskinean jaso dira eta 2009koak dira. Guztira Osakidetzako zein eremu pribatuko 40 zentrotako datuak bildu dira. 2009an Donostiako Amarako osasun-zentroa hasi da jakinarazpenak bidaltzen.

LARRIALDI-ADIERAZLEAN, substantzia psikoaktiboak kontsumitu direla aipatzen duten larrialdi-gertakariak bilatzen dira. Bilaketa aktibo hori erregistro horretarako EAEn erreferentziatzat jo diren ospitaletan egiten da, hain zuzen ere, Bizkaiko lurralde historikoko Gurutzetako, Basurtuko eta Galdakaoko ospitaleetan, eta 15-54 urte bitartekoen artean. OED behatokiarekiko koordinazioak, bestalde, gertakari horiek hilabete bakoitzeko zein astetan bilduko diren ezartzen du. Substantzia psikoaktibo

guztiak sartzen dira, tabakoa eta alkohola izan ezik, beste substantzia psikoaktibo batzuen kontsumoarekin lotuta ez badaude, behintzat<sup>2</sup>.

2009an, zuzenean egin ahal izan da bilaketa, informatizatutako larrialdigertakarietan. Horrenbestez, informazio zehatzagoa bildu ahal izan da.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judicial guztietan jasotzen da 1996tik, SEITen<sup>3</sup> protokoloaren arabera. 2001. urtetik aurrera, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) martxan jarri zenetik, heriotzen jakinarazpenak institutu horrek Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dituen zuzendariordeztetako auzitegiko medikuen bitartez egiten dira, substantzia psikoaktiboekiko erreakzio akutuak eragindako heriotzaren auzitegiko diagnostikoa egin ondoren.

10-64 urte bitarteko 100.000 biztanleko hilkortasun-tasa espezifikoak kalkulatu dira, substantzia psikoaktiboen erreakzio akutuengatik, bai eta adinaren arabera estandarizatutako tasak ere, zuzeneko estandarizazio bidez, erreferentziako populazio gisa Europako populazio estandarra erabilita.

Tasa horiek kalkulatzeko EUSTAT/Euskal Estatistika Erakundeak 2009an zabaldutako 2020ko populazio proiektzioak erabili dira.

## **EMAITZAK**

### ***TRATAMENDU-ADI ERAZLEA***

2009an, 2.757 onarpen erregistratu ziren substantzia piskoaktiboen kontsumoagatik tratamenduan jartzeko. Horietatik, % 15 Arabako zentroetan, % 25 Gipuzkoako zentroetan eta kopururik handiena Bizkaikoetan (onarpenen % 60). Tratamendu-onarpen guztietatik 2.705, EAEn bizi ziren. Gehienak, 2.339 (% 84,9) Espainian jaio ziren; atzetik, Marokon jaiotakoak izan dira ugarien (110), Aljerian (35) eta Kolonbian (33), eta gero beste zenbait herrialdetan.

**1. grafikoan**, tratamendu-onarpenen banaketa ikus daiteke, tratamendua eragin duen drogaren arabera. Ikus daitekeenez, alkohola da gehienetan tratamenduan hastea eragin duena (1.086); bigarren postuan kokaina dago (768 onarpen) eta hirugarrenean heroina (442 onarpen).

**1. taulan** tratamenduan hastea onartu dituzten pertsonen ezaugarriak zein diren ikusten da, tratamendua eragin duen drogaren arabera banatuta. Modu horretan, argi ikusten da ezaugarri soziodemografikoak eta kontsumo-ezaugarriak aldatu egiten direla droga-motaren arabera. Gizonezkoen ehunekorik handiena, izatez, cannabisaren eta antetaminen kontsumoan ageri da: gazteenak cannabisaren eta antetaminen kontsumoagatik tratamendua izateko onartuak dira (batez beste, 25,2 eta 31,3 urte, hurrenez hurren); eta zaharrenak, alkoholaren (45 urte, batez beste) eta heroinaren (37,7 urte) kontsumoagatik tratamendua hasten dutenak. Ikasketa-mailari dagokionez, aurreko urteetan bezalaxe, heroinaren kontsumoagatik tratamendua hasten dutenek dute mailarik baxuena. Alkohola kontsumitzeagatik onartutakoak dira, ordea, ikasketa-mailarik gorena dutenak. Lan egoerari buruz, lan-harreman mugagabeen edo aldi baterako diharduten pertsonen artean, kokaina eta alkohola kontsumitzeagatik tratamendua hasten dutenek dute lanean ari direnen ehunekorik altuena. Cannabis kontsumitzeagatik tratamenduan hasten direnen % 25 ikasleak dira. Kasu guztiak kontuan hartuta, tratamenduari ekiten dioten pertsonen % 43,2 langabezian egoten da.

Jaioterriari dagokionez, eta gehien onartutako drogak aintzat harturik, aipatzekoa da Afrikatik etorritako pertsonak direla onetsitako cannabis-kasuen %11 eta kokaina-kasuen %8. Heroinaren kasuan, % 6,7 pertsona dira estatu europearretan jaiotakoak; alkoholarengatik onaturikoen artean, aldiz, latinoamerikarrek dute atzerritarren ehunekorik gorena (%6,3).

Kasu gehienetan, tratamendurako onartutako gehienak etxeetan, etxebizitzetan edo apartamentuetan bizi dira (% 83,0). Bizikidetzan ere ikertu da, eta patroia aldatu egiten da, droga nagusiaren arabera. Izan ere, alkoholaren kasuan, paziente gehienak bikotekide eta seme-alabekin bizi dira; anfetamina, kokaina, cannabis, heroina edo hipnolasaigarrien kasuan, aldiz, gurasoekin. Aztertu da, halaber, pazienteak nola eta noren bidez sartzen den tratamendu-zentrorra: lehen mailako arreta bidez gauzatzen da, bai alkoholaren bai hipnolasaigarrien kasuan. Hala ere, heroina, kokaina, cannabis eta anfetaminen kasuan, nor bere ekimenez sartzen da zentrorra. Cannabisari dagokionez, polizia-zerbitzuetatik etortzen dira pazienteen %12,3.

Aldez aurreko tratamendua gauzatzeko garaian ere desberdintasun batzuk ageri dira. Heroinagatik hasitako tratamenduetan, esate baterako, lau kasuetatik hiru ez dira berriak, lehendik ere tratamendupean egondakoak baizik. Gainerako substantziei buruz, ez dago hainbesteko alderik, kasu berrien eta berriro hasitako kasuen artean.

Heroina, cannabisa, hipnolasaigarriak eta alkohola kontsumitzeagatik tratamenduan hasten diren paziente gehienek egunero kontsumitzen dute. Kokaina edo anfetaminen kasuan, baina, egunero kontsumitzen da, edo antzeko kantitatea, asteburuan. Berdintsuak dira kontsumo-eredu hori eta aurreko urteetakoak.

Tratamenduan onartu aurreko 30 egunetan droga nagusiaren kontsumo-maiztasunari buruzko datuak interpretatzeko garaian, ez dugu ahaztu behar tratamenduan hasi aurreko aldi hori atipikoa izan daitekeela eta agian ez dela gaixoaren ohiko kontsumo-maiztasunaren adierazgarri egokiena izango, zeren baliteke gaixoa kontsumo-ohiturak aldatzen hasi izana, bere kabuz edo bestek aginduta. Begi-bistakoa da, ondorio gisa, pazienteen

%13,4k ez zuela drogarik kontsumitu, tratamenduari ekin aurreko 30 egunetan.

Hartzeko moduari dagokionez, adierazi behar da heroinaren kasuan gehienek birika-bidea erabiltzen dutela (% 54,5k). Kokainaren eta anfetaminen kasuan, gehienek sudur barnetik hartzen dute.

Esan beharra dago, kontsumitu ohi duten droga nagusiari buruz, desberdintasun batzuk daudela tratamendurako onarpena eragiten duen drogaren arabera. Alkohola edo heroina kontsumitzeagatik tratamenduan hasten direnen kasuan, kontsumo-historia luzea izaten dute. Cannabis kontsumitzeagatik onartutako pertsonak dira denborarik gutxien kontsumitzen aritu direnak.

**2. taulan**, 1994tik 2009ra toxikomaniak direla-eta tratamenduan hasi direnen bilakaera ikusten da, tratamendua eragiten duen droga nagusiaren arabera —alkohola kanpoan utzita—. 1996. urtean erregistratu zen onarpen kopuru handiena, eta ikus daitekeenez, harrezkero, jaitsi egin da pixkanaka guztizko kopurua 2000. urtera arte; heroinak eragindako onarpenen jaitsieraren pare. Hala ere, 2001etik aurrera, handituz joan zen guztizko kopurua, batik bat kokaina eta cannabis kontsumitzeagatik onartutako tratamenduen kopurua igo egin zelako. 2005az geroztik, berriro jaitsi zen kopurua, eta horrela jarraitu zuen 2006 eta 2007an, kokainagatiko onarpenen kopurua pixkanaka jaitsiz. 2008an, kokaina eta heroinagatik onartutako kasuak igotzen hasi ziren; 2009an, baina, berriz ere jaitsi ziren kasuak eta, horrekin batera, onarpenen guztizko kopurua. Cannabis kontsumitzeagatik onartutakoen kopurua handituz joan da, etengabe, 2001z geroztik.

Droga nagusian oinarrituta egin da azterketa hori; aipatzekoa da, hala ere, tratamendua hasten duen pertsona bakoitzak beste droga batzuk kontsumitu ditzakeela droga nagusiaz aparte, eta era honetara jakinarazten dituzte: "tratamendua hasi aurreko egunetan kontsumitutako drogak" 2009an, tratamendua hasi zutenen erdiek baino zertxobait gehiagok (% 50,2k) gutxienez beste droga bat ere kontsumitzen zuen, % 21,7k,

gutxienez, beste bi droga gehiago, eta % 6,9ek, gutxienez, beste hiru gehiago. (Datu horiek ez dira taulan agertzen).

**2. grafikoan**, droga nagusiak direla eta tratamenduan hasitakoen bilakaera ikusten da —alkohola aparte utzi da—. EAEn, 2003tik aurrera, kokainatik hasitako tratamendu-kopurua handiagoa da heroinak eragindakoena baino. Oso nabarmena da, 1996tik, heroinaren jaitziera etengabea; 2008an igoera txiki bat egon arren, berriro ere jaitzi zen 2009an. **3. eta 4. grafikoetan** argi ikusten da 2008ra arte egondako bilakaera, Espainiako estatuan. Grafiko horietan, lehen EAErako esan dugunaren antzera, heroinak eragindako tratamendu-hasierek 2007ra arte behera egin dutela ikusten da; urte horretan eta 2008an, baina, lehendabiziko aldiz tratatutakoen kopuruak gora egin zuen, pixka bat. Kokainari dagokionez, atentzioa ematen du 2006tik aurrera lehenengo tratamenduek izandako beherakadak.

Zehatzago deskribatzen dira, **3. taulan**, EAEn alkohol-kontsumoagatik tratamendua hasten duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak.

Taula horretan ikus daitekeenez, batez besteko adina —tratamendua hastean— 45,5 urte ingurukoa izaten da gizonezkoen kasuan, eta 46,0 emakumezkoen kasuan; hala ere, kontsumoaren hasieran batez besteko adina —aurreko urteetan bezalaxe— txikiagoa da gizonezkoen kasuan, 20 urterekin edaten hasten baitira eta emakumezkoak, ia 27 urterekin.

Gauza jakina da alkohola kontsumitzeagatik tratamendua hasten duten pertsona gehiago hartzen dituztela Bizkaiko zentroetan.

Oro har, ez dago ezberdintasunik gizonezkoen eta emakumezkoen artean, ikasketa-mailari buruz; izan ere, unibertsitate-ikasleak dira emakumezkoen %9,1 eta gizonezkoen %6,8; lanean dihardutenei buruz, ordea, gizonezko gehiago ari dira lanean emakumezko baino: %44,3 eta %33,2, hurrenez hurren. Langabeziari dagokionez ere, gizonezko gehiago (%37,2) daude lanik gabe emakumezko (%31,6) baino. Aipagarria da, era berean, emakumezkoen %17k etxeko lanak baino ez dituela egiten.



Jaioterriari buruz, gehienak (%85,3) Espainian jaiok dira. Emakume latinoamerikarrak dira atzerriko jatorri-herrialdea dutenen artetik talderik handiena (emakume guztien % 10).

Bizikidetzari dagokionez, gehienak, bai gizonak bai emakumeak, bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi dira, baina gizon gehiago bizi da bakarrik, eta bada alderik ere seme-alabekin bakarrik bizi direnen artean; izan ere emakumeen % 14,1 hala bizi da, eta gizonen % 2,6, bakarrik.

Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona horrek nola eta noren bidez jotzen duen tratamendu-zentrorra, alkoholaren kasuan, gehienak, bai gizonak bai emakumeak, lehen mailako arretatik bideratuta jotzen dute.

Gutxi gorabehera, kasuen erdiek, bai gizonen bai emakumeen erdiek, ez dute aurretiazko tratamendurik egin, eta egunero kontsumitzen dute alkohola. Dena den, gizonek baino emakumeen ehuneko handiago batek kontsumitzen du alkohola astean 2-3 egunetan (asteburuetako kontsumoa).

Tratamendua hasi aurretik alkohola kontsumitzen daramaten denbora hartzen badugu kontuan, ikusten dugu gehienak 15 urte baino gehiago daramatela kontsumitzen; dena den, oro har, emakumeek gizonek baino kontsumo-denbora gutxiago daramate (kontuan hartzekoa da aldagai honi kasuen % 21ek erantzun diotela "ezezaguna").

**5. grafikoan**, 1998. urtetik alkohola dela-eta tratamendua hasi dutenen bilakaera ikusten da, sexuaren arabera. Ikusten da 2002. urtean erregistratu zela tratamenduan onartutakoen kopuru handiena.

## **LARRIALDI-ADIERAZLEA**

2009an substantzia psikoaktiboak erabiltzeagatik 742 larrialdi-gertaera erregistratu ziren ospitaleetan.

Larrialdi-gertaera horiek erreferentziazko hiru ospitaleetan erregistratu ziren, OEDrekin (Drogen Espainiako Behatokiak) egiten den koordinazio-lanetik adierazitako 12 asteetan.

Laginketaren 12 asteetan erregistratutako larrialdiak direla kontuan hartuta, kalkulatu daiteke 2009an Bizkaiko lurralde historikoko hiru ospitaleetan 3.224 larrialdi izan zirela, guztira.

**4. taulan** pazienteen ezaugarriak deskribatu dira. Gertaeren % 42,6 Basurtuko ospitalean erregistratu ziren. Kasuen % 71 gizonezkoak izan ziren, eta batez besteko adina 34 urte izan zen, bai gizonetan bai emakumeetan. Kasuen erdian baino gutxiagoan (% 45,7), urgentziaren diagnostikoa drogen kontsumoarekin loturik dago, zuzenean. Kasurik gehienei alta eman zitzaizen. Guztira 1.030 diagnostiko egin ziren; horrek esan nahi du larrialdi-gertakari bakoitzeko 1,4 diagnostiko, batez beste.

### *ANALISIA, DROGAK BANAN-BANAN HARTUTA*

**5-8 tauletan**, larrialdietako diagnostikoen banaketa ikusten da, droga hauetakoren bat hartu dela aipatu den kasuetan -gertaera bakoitzean-: heroina, kokaina, cannabisa eta hipnotikoak eta lasaigarriak. Ez da alkohola deskribatu, larrialdi-gertaeran soilik alkohola aipatu arren, ez baita kasu bezala jasotzen.

Heroina kontsumitu dela aipatzen den larrialdi-gertakarietan (5. taula), diagnostiko gehienak buru- eta portaera-arazozen multzokoak dira (% 41,4), baina arnas sistemako gaixotasunen multzoak ere badu garrantzia (% 11,5), baita sintomak, zeinuak eta emaitza kliniko eta laborategiko anormalek ere (aurrerantzean gaizki definitutako zeinuak), diagnostikoen % 11,5 multzo horretakoak baitira.

Larrialdian kokaina kontsumitu dela aipatzen denean, diagnostiko gehienak buru- eta portaera-arazoek multzokoak dira (% 53,7), eta horien barnean kokaina eta alkohol kontsumoarekin zuzenean erlazionaturakoak, bai eta trastorno neurotikoen eta nortasunaren trastornoen multzokoak ere. Gaizki definitutako zeinuen barrukoetan, nabarmenenak abdomeneko mina eta bularreko mina dira (prekordiala eta beste batzuk) **(6. taula)**.

Hipnotikoak eta lasaigarriak kontsumitu direla aipatzen denean erregistratutako diagnostiko gehienak **(7. taula)** buru eta portaera-arazoek multzokoak dira, eta horien barnean, hipnolasaigarri eta alkoholaren kontsumoak eragindakoak. Horretaz gain, komeni da adieraztea saiakera autolitikoak hipnotiko eta lasaigarrien kontsumoarekin erlazionatuta larrialdi-zerbitzuetan egiten diren diagnostiko guztien % 11 direla.

Cannabisaren kasuan **(8. taula)**, larrialdi-gertaeretan egindako diagnostiko gehienak buru- eta portaera-arazoek multzokoak direla, eta horien barruan, nagusiki, eskizofrenia, trastorno eskizotipikoak eta deliriozko trastornoak, alkohol, cannabisaren kontsumoarekin erlazionaturakoak atzetik direla, eta antsietate-trastornoak. Gaizki definitutako zeinuen multzoko diagnostikoekin erlazionaturako gertakarien artean, nabarmentzekoak dira abdomeneko mina, konbultsioak eta sinkopeak.

Larrialdi-gertakarietan gehien aipatzen diren substantziak dira: cannabis, kokaina, hipnolasaigarriak eta alkohola, **9. taulan** ikusten denez.

**10. taulan**, diagnostikoa droga-kontsumoarekin zuzenki erlazionatuta zegoen larrialdi-gertakarietan kontsumitu zirela aipatzen diren substantzien banaketa ageri da. Kasu horretan ere hipnolasaigarriak dira nagusi; ondoren, alkohola eta kokaina datoz, aurreko urteetan bezala.

## **HILKORTASUN-ADIERAZLEA**

2009an 50 pertsona hil ziren substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzio akutuen eraginez, aurreko urtean baino pertsona bat gehiago. % 60 Bizkaian hil zen, % 28 Gipuzkoan eta % 12 Araban. Horietatik 46 EAEn bizi ziren.

**11. taulan** hildakoen informazio klinikoa eta datu sozio-demografikoak deskribatzen dira. Hildakoen %74 gizonak ziren. Batez besteko adina: 41 urte bai gizonek bai emakumeek. Heriotza gehien etxeetan gertatu ziren (% 56) edo kalean (% 10). Kasuen % 22an suizidio-ebidentziak aurkitu ziren. GIBari dagokionez, egoera serologikoa, ezezaguna da hildako gehienetan.

**12. taulan**, hildakoen analisi toxikologikoetan aurkitutako substantziak deskribatzen dira; sarrien aurkitu den substantzia benzodiazepinen taldea izan da (kasuen % 39tan aurkitu da); jarraian, heroina, metadona alkohola eta kokaina. Hildako bakoitzean, batez beste, 3 substantzia psikoaktibo aurkitu dira.

Azterketa-urte honetan, 2,94 izan da drogen kontrako erreakzio akutuak eragindako heriotza-tasa 100.000 biztanleko, bi sexuetan; Europako populazioarekin estandarizatutako tasa (EET), berriz, 2,52 da 100.000 biztanleko (KT % 95 1,79-3,25).

Gizonetan, EET 3,78 izan zen 100.000 biztanleko (KT % 95 2,52-5,03) eta txikiagoa emakumeetan: 1,22 100.000 biztanleko (KT % 95 0,50-1,94).

**6. grafikoan**, azken 10 urteetan substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzioak eragindako heriotza-tasaren bilakaera ikusten da. 2003ra bitarte heriotza-tasak beheranzko joera duela ikusten da, bai gizonetan bai emakumeetan. Baina 2004an igoera izan zuen eta horri eutsi zion 2005ean. Handik aurrera berriz ere beherantz hasi zen baina gora beherak izan ditu eta gorantz egin du, pixka bat, aurten.

**13. taulan**, 1997. urteaz geroztik substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzioek eragindako hilkortasunaren bilakaera deskribatu da zehatz-

mehatz; **7. grafikoan** hildakoen batez besteko adinaren bilakaera ageri da, eta ikus daiteke adinak gora egin duela urteetan zehar: 1997an batez besteko adina 30 eta 31 urte zen gizonentzat eta emakumeentzat, hurrenez hurren, eta 2009an, aldiz, 41 urte dira bientzat.

## **OHARRAK**

Zeharkako hiru adierazle horietako datuen deskribapenak EAEn drogen kontsumoak eragin dezakeen ikuspegi orokorra eta gertukoa izaten uzten digu, arazo berberaren alderdi desberdinak erakusten baitizkigu.

EAEko tratamendu-adierazleak —ez ditu espetxeetan dauden pertsonak hartzen, baina sar daitezke espetxeetan lo bakarrik egiten dutenak, tratamendu ambulatorioa beste zentro batzuetan egiten baitute— erakusten digu 2009an jaitsi egin dela kokaina eta heroinagatiko tratamendu-hasierak. Joera hori aurreko urteetatik<sup>4</sup> ari da nabarmentzen, nahiz eta 2008an gora egin zuten baina behera egin duten, berriz ere, urte honetan.

Aurreko urteetan nabarmen ikusi denari jarraiki, gorantz jarraitzen dute cannabisa kontsumitzeagatiko tratamendu-hasierek; dagoeneko toxikomania ez-alkoholikoengatiko tratamendu-hasieren % 16 dira. Ehuneko hori handiagoa da Espainia<sup>5</sup> osoa kontuan hartuta, tratamendu-hasieren % 11,7 baitira (eskura ditugun azkeneko datuak 2007koak dira). EAEn, ikasleak dira cannabis kontsumoagatik tratamendua hasten dutenen ia % 25, eta gazteenak ere badira tratamendua hasten dutenen artetik, Europan<sup>6</sup> bezalaxe, hauxe baita cannabisa kontsumitzeagatik tratamendu hasten duen pertsonaren profila: gaztea, gizonezkoa (gizon eta emakumeen arteko proportzioa 5:1 da), eta batez besteko adina 25 urte, EAEn bezala. Azpimarratu behar da, bestalde, zeintzuk diren cannabisaren kontsumoak dakartzan ondorio negatiboak: eskola-porrota, desegituratze pertsonala eta soziala, eta lanarekin eta osasunarekin loturiko arazoak. Inplementatutako neurriengatik ere, ez dirudi jende gehiago jabetzea lortu denik cannabisa kontsumitzeak dituen arriskuez eta berekin ekartzen dituen ondorio larriez<sup>7</sup>.

Espainiako eta Europako behatokitik, ez dira jasotzen alkoholarengatiko tratamendu-onarpenak, eta, beraz, ezin da EAEko datuekiko konparaziorik egin. Azpimarratu behar da 2009a izan dela, alkohola erregistratzen ari garen urte guztietatik, tratamenduan hastea emakume gehien onartu den urtea.

Tratamendu-adierazleari dagokionez, Espainian 2007ra bitarteko datuak daude. Horien arabera, 1996tik egonkortasuna dela nagusi esan daiteke. Egonkortasun hori zenbait faktoreren nahasketagatik gertatu da: heroina kontsumoak behera egitea, eta iraupen luzeko tratamenduek izan duten eragina, esaterako opioideak ordezkatzeko programak, izan ere, gutxitu egiten du erabiltzaileak asistentzia-zerbitzu batetik bestera ibiltzea. Horiek tratamendu-onarpenen kopurua jaisten lagundu dute. Baina bestetik, hor dago kokaina eta cannabis kontsumoak izan berri duen gorakada, eta horrek onarpen kopuruak gora egitea eragiten du<sup>4</sup>.

Europako datuak kontuan hartuta, espainiarrak dira substantzia psikoaktiboak kontsumitzeagatik tratamendu bat hasten duten Europako biztanlerik zaharrenak (33 urte). Eskura dauden azkeneko datuak 2008koak dira. Horien arabera, tratamendua hasten duten pazienteen erdiek baino gehiagok (% 53), opiazeoak aipatzen dituzte, bereziki heroina, kontsumitutako droga nagusi gisa; % 22k, berriz, cannabisa eta % 18k, kokaina. Europan heroina-kontsumoak duen joerari dagokionez, tratamendu-adierazleko datuak erabiltzen dira, zeharkako kontsumo-adierazle gisa. 19 herrialdetik lortu da lagina. Lagin horren arabera, droga nagusi gisa heroina kontsumitzeagatik tratamendua hasitakoen kopuruak eta lehenengoz tratamendua hasi zutenen kopuruak gora egin du 2003tik 2008ra. Gertuagoko aldi bat kontuan hartzen bada, opiazeoak kontsumitzeagatik tratamendua hasi zutenen kopuruak gora egin du 11 herrialdetan 2007tik 2008ra. Tratamendua lehenengoz hasi zutenei dagokienez, goranzko joera orokorra egonkortu egin zen 2008an, baina, hala ere, sei herrialdek gorantz doazen zifrak ematen jarraitu zuten. Pentsatzen da Afganistanen opio-ekoizpena areagotzea, eta, horrenbestez, Europako merkatuan heroina gehiago izatea, erlazionatuta egon daitekeela 2003tik opiazeoen kontsumoaren adierazleek izan duten beheranzko joera egonkortzearekin.

Espainia da Erresuma Batuarekin batera kokaina-kontsumoaren prebalentzian buru den herrialdea.

Larrialdi-adierazlea ez da EAE osoaren adierazgarri, Bizkaiko Lurralde Historikoko ospitaleetako lagin bat hartzen duelako hilabete bakoitzeko aste jakin batean (ausaz aukeratzen da astea), baina tratamendu- eta hilkortasun-adierazleek ematen diguten informazioa eta batez ere joera osatzeko baliagarria da.

2009an larrialdi-gertakari gehiago erregistratu da 2008an baino, erreferentzia-ospitaleetan bilaketa zehatzagoa egin ahal izan delako; hala, 2008an, 356 gertakari erregistratzen zirela, 2009an, 742 erregistratzen pasatu da, hau da, 2008koen bikoitza baino gehiago. Horregatik ez da uste egokia denik aurreko urteekiko konparaziorik egitea. Garrantzitsua litzateke, aldi behin, EAEko ospitale guztietan izandako ospitale-larrialdietan drogek zer eragin izan duten jakitea.

Aurreko urteetan, drogen kontrako erreakzioak eragindako heriotza-tasaren jaitsiera mailakatua ikus zitekeen EAEko Hilkortasun-adierazlean. Tasarik txikiena 2004. urtean izan zen. 2005ean, Espainia osoan<sup>5</sup> bezala, gora egin zuen tasa horrek, baina ez dakigu zergatik. Urte hartan, heroina izan zen hildakoetan maizenik aurkitutako droga. 2006tik aurrera, behera egin zuten tasek 2008ra bitarte, eta gora egin dute pixka bat 2009an. Azken hiru urteetan kokaina izan zen hildakoetan maizenik aurkitu zen droga, baina 2009an, droga hori bosgarren lekura pasatu da, benzodiazepinen, heroinaren, metadonaren eta alkoholaren atzera. Horrenbestez, 2009an tasak gora egiteaz gain, hildakoetan maizenik aurkitutako drogan aldaketa izan dela erregistratu da.




## BIBLIOGRAFIA

1. Toxikomaniei buruzko Estatu mailako Informazio Sistema (SEIT) (2003). *Protocolo del Indicador Admisiones a Tratamiento por Consumo de Sustancias Psicoactivas*. Madril, 2002
2. Toxikomaniei buruzko Estatu mailako Informazio Sistema (SEIT) (2003). *Protocolo del Indicador Urgencias Hospitalarias Directamente Relacionadas con el Consumo de Sustancias Psicoactivas*. Madril, 2002.
3. Toxikomaniei buruzko Estatu mailako Informazio Sistema (SEIT) (2003). *Protocolo del Indicador Mortalidad por Reacción Adversa Aguda a Sustancias Psicoactivas*. Madril, 2002.
4. Toxikomaniei buruzko Estatu mailako Informazio Sistemaren txostena. Euskal Autonomia Erkidegoa 2008. Lan-dokumentua. [www.osanet.net](http://www.osanet.net)
5. Drogen Espainiako Behatokiaren 2009ko txostena. <http://www.pnsd.msc.es>
6. Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia. 2008. Europar Batasunean eta Norvegian drogamendekotasunaren arazoari buruzko urteko txostena. Luxenburgo: Europako erkidegoen argitalpen ofizialen bulegoa, 2010.
7. Drogen Plan Nazionala CANNABISA. Drogen Plan Nazionalerako Gobernu Ordezkaritzaren batzorde klinikoaren txostena. Madril, 2006.

## **ESKERRAK EMATEA**


Eskerrik asko toxikomaniak tratatzeko zentroetako profesional guztiei eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegiko medikuei, datuak hain zehatz jaso eta bidaltzeagatik.

**1. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.**  
Tratamendu-onarpenak, tratamendua eragin duen drogaren arabera.  
EAE 2009



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.


**2. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.**  
Heroina, kokaina eta cannabisaren tratamendurako onartutakoen bilakaera.  
EAE 1992-2009



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila


### 3. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.

Espanian heroinaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen bilakaera 1991-2008



Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu-adierazlea.


**4. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.**  
 Espainian kokainaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen bilakaera  
 1991-2008



Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu-adierazlea.

**5. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.**


Alkoholagatik tratamendua jasotzea onartutakoen bilakaera, sexuaren arabera.  
EAE 1998-2009.



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

### 6. grafikoa. HILKORTASUN-ADIERAZLEA.

Substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzio akutuak eragindako heriotza-tasaren bilakera, sexuaren arabera. EAE 1998-2009.




Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila



### 7. grafikoa. HILKORTASUN-ADIERAZLEA.

Substantzia psikoaktiboen kontrako erreakzio akutuaren ondorioz hildakoen batez besteko adinaren bilakaera, sexuaren arabera. EAE 1996-2009



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

1. taula. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Tratamendurako onartu dituzten pertsonen ezaugarriak, onarpen hori eragin duen drogaren arabera. EAE 2009.

	Heroina	Anfetam.	Kokaina	Hipnotikoak eta lasaigarriak	Cannabisa	Alkohola	Heroina + Kokaina	Beste batzuk	Guztira	
<b>Kopurua guztira</b>	<b>442</b>	<b>138</b>	<b>768</b>	<b>11</b>	<b>269</b>	<b>1.086</b>	<b>9</b>	<b>34</b>	<b>2757</b>	
<b>Batez besteko adina (urteak)</b>	<b>37,2</b>	<b>31,3</b>	<b>32,8</b>	<b>39</b>	<b>25,2</b>	<b>45</b>	<b>33,1</b>	<b>32,2</b>	<b>N</b>	<b>%</b>
<b>Sexua</b>										
Gizonak	81,2	82,6	88,5	63,6	87,7	77,8	100,0	76,5	2276	82,5
Emakumeak	18,8	17,4	11,5	36,4	12,3	22,2	0,0	23,5	481	17,5
<b>Adin taldea</b>										
10-14	0,0	0,0	0,0	0,0	0,7	0,1	0,0	0,0	3	0,1
15-19	0,5	4,3	1,8	0,0	29,0	0,6	0,0	17,6	112	4,1
20-24	6,3	12,3	12,9	9,1	27,5	2,8	11,1	20,6	257	9,3
25-29	10,4	23,9	23,8	0,0	18,2	5,2	22,2	14,7	374	13,6
30-34	15,6	27,5	21,5	27,3	10,8	9,4	22,2	5,9	410	14,9
35-39	27,4	20,3	18,7	18,2	7,1	13,2	22,2	5,9	460	16,7
40-44	22,9	7,2	12,9	9,1	3,3	18,9	11,1	17,6	432	15,7
45-49	12,2	2,9	5,6	27,3	1,5	17,3	11,1	8,8	300	10,9
50-54	3,8	1,4	2,3	0,0	0,4	13,5	0,0	5,9	187	6,8
55-59	0,9	0,0	0,3	9,1	1,5	9,5	0,0	2,9	115	4,2
60 o más	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	9,6	0,0	0,0	105	3,8
<b>Ikasketak</b>										
Ez daki irakurtzen, ezta idazten ere	1,6	0,7	0,9	27,3	1,5	0,5	0	0	27	1,0
Lehen Hezkuntza bukatu gabe	19,0	14,5	11,4	9,1	16,0	16,2	22,2	14,7	418	15,2
Lehen Hezkuntza bukatuta	31,9	25,4	26,9	27,3	22,3	31,6	11,1	20,6	796	28,9
Bigarren Hezkuntzaren 1. etapa, OHO, DBH, LH1 edo erdi-mailakoa	26,5	35,5	39,3	36,4	36,4	24,7	33,3	47,1	856	31,1
Bigarren Hezkuntzaren 2. etapa, LH2, BBB, UBI	12,9	19,6	16,3	0,0	16,7	16,4	33,3	5,9	437	15,9
Unibertsitateko erdi-mailako ikasketak	1,6	0,7	1,4	0,0	2,2	3,2	0,0	2,9	61	2,2
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	0,9	1,4	2,0	0,0	1,1	4,1	0,0	2,9	69	2,5
Beste batzuk	0,5	0,7	0,5	0,0	1,5	0,3	0,0	0,0	14	0,5
Ezezaguna	5,2	1,4	1,3	0,0	2,2	3,1	0,0	5,9	77	2,8
<b>Lan-egoera</b>										
Lan-harreman mugagabea edo autonomia	14,0	20,3	34,1	9,1	14,1	32,0	22,2	26,5	749	27,2
Aldi baterako lan-harremana	7,9	13,8	12,1	9,1	8,2	9,8	11,1	0,0	277	10,1
Soldatarik gabe, familiarentzako lanean	1,1	0,7	0,8	0,0	0,4	0,9	0,0	0,0	23	0,8
Langabea, aurretik lanik egin gabea	6,3	4,3	4,8	9,1	8,9	2,4	11,1	17,6	129	4,7
Langabea, aurretik lana eginda	49,5	52,9	37,6	45,5	34,6	33,5	44,4	44,1	1061	38,5
Ezintasun iraunkorra duena, pentsioduna	8,1	2,2	3,3	9,1	1,1	12,2	0,0	5,9	202	7,3
Ikasten edo oposizioak egiten	0,5	0,7	1,0	0,0	24,9	0,5	0,0	2,9	84	3
Soilik etxeko lanak egiten	1,1	0,0	0,7	18,2	0,4	4,1	0,0	0,0	57	2,1
Beste egoera batean	5,7	3,6	3,1	0,0	4,5	3,1	11,1	2,9	102	3,7
Ezezaguna	5,7	1,4	2,5	0,0	3,0	1,6	0,0	0,0	71	2,6
<b>Jaioterrria</b>										
Espainia	85,5	95,7	83,8	81,8	82,5	85,3	55,6	73,5	2339	84,9
